



## BIGARREN ZIRKULARRA

Joan den martxoan iragarri genuen moduan, **Trantsizioaren beste protagonistak: mobilizazio sozialak eta ezker erradikala** II. biltzarra egingo dugu Bartzelonan, 2019ko urriaren 11-13 bitartean. 2017ko otsailaren 24 eta 25ean Madrilan egin zen [Las otras protagonistas de la Transición](#) biltzarrari eta urte bereko irailaren 26-30ean Bartzelonan egindako [Altres protagonistes de la Transició](#) jardunaldiari jarraipena eman nahi die topaketa honek.

Topaketa haietako ekarpenen kopuru eta kalitate handiari eusteko asmoz, II. biltzarrean parte hartzeko deia egiten dugu, bi aukeraren bidez. Batetik, bizi-ibilbideen edo militantzia-ibilbideen **lekukotzak** eskainiz. Lehentasunezko lekua eman nahi diegu halakoei eta, beraz, 1970eko hamarkadan edo 1980ko hamarkada hasieran esparru politiko edo sozial eraldatzaile eta erradikaletan nolabaiteko parte-hartzea izan zuten pertsona guztiei zuzentzen gatzaizkie. Bestalde, **komunikazio-proposamenak** jasotzeko epe bat zabaldu dugu, biltzarraren aztergaiari buruz orain egiten ari diren edo dagoeneko bukatuta dauden ikerketen emaitzak aurkezteko.

Saioak honako gai-ardatz hauen arabera antolatuko dira:

- Antolakunde politikoak eta militantzia-esparruak
- Langile-mugimendua
- Ikasle-mugimendua eta hezkuntza-mundua
- Hirietako gizarte-mugimenduak
- Feminismoak
- Sexu-askapenerako eta LGTB+ mugimenduak
- Antimilitarismoa eta bakezaletasuna
- Ekologismoa
- Nekazarien eta landa-inguruneari lotutako mugimenduak
- Kontrakultura
- Zigor-esparru eta -praktikak eta errepresioaren aurkako borroka
- Antipsikiatria

Parte hartzeko proposamenak –bai lekukotzak bai komunikazioak– helbide elektroniko honetara bidali behar dira: [congrestransicio2019@gmail.com](mailto:congrestransicio2019@gmail.com). Komunikazio-proposamenen kasuan, izenburua, edukiaren laburpentxo bat (berrehun hitz gehienez ere) eta harremanetarako datu pertsonalak erantsi behar dira. Komunikazio-proposamenak aurkezteko epea **2018ko urriaren 31** da, eta 2018ko azaroaren 30erako jakinaraziko dugu onartu diren ala ez. Komunikazioen testuak katalanez, gaztelaniaz, galizieraz eta euskaraz aurkeztu ahal izango dira, 2019ko ekainaren 30era arte.

Bartzelonan, 2018ko uztailan

**ANTOLAKUNTZA-BATZORDEA:** Ivan Bordetas, Pau Casanellas, Cristian Ferrer González, Joan Gimeno Igual, César Lorenzo Rubio, Ricard Martínez i Muntada, Carlos Ángel Ordás, Helena Saavedra Mitjans, Anna Sánchez Sorribes, Jordi Sancho Galán, Josep Maria Solé Soldevila, Enrique Tudela Vázquez.

**BATZORDE ZIENTIFIKOA:** David Beorlegui, Claudia Cabrero Blanco, Montse Cervera, Brice Chamouleau, Emili Cortavitarte, Eva Fernández, Meritxell Ferré Baldrich, Enrique González de Andrés, Martí Marín, Sara Martín Gutiérrez, Jordi Mir Garcia, Justa Moreno, Mónica Moreno Seco, Pedro Oliver Olmo, Joaquim Ortín, Jaime Pastor, Nerea Perez Ibarrola, Pablo Sánchez León, Aránzazu Sarria Buil, Gonzalo Wilhelmi.

**LAGUNTZAILEAK:** Fundació Salvador Seguí, Ateneu Popular de 9 Barris, Centre d'Estudis sobre Dictadures i Democràcies (CEDID-UAB), Centre d'Estudis sobre Moviments Socials (CEMS-UPF).



<https://congrestransicio2019.wordpress.com>